



‘Bertsotranpak’ emanaldia ikusgai, gaur zineman

LEITZA ▶ Bertsolaritza eta antzerkia uztartzen ditu emanaldiak; 19:00etan hasiko da

PROTAGONISTAK ▶ Ander Lipus aktorea, Andoni Egaña, Xabi eta Predi Paia bertsolariak ariko dira ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

‘Txikimundi’ kaleratu dute eskola txikien alde

Lanean Ormazabal eta Igerabide aritu dira ▶ 5

Eguneko Zentroa martxan dute maiatzaz geroztik, bi erabiltzailerekin

BERASTEGI ▶ Familiei eta adinekoei laguntza eskaintzeko erdibideko azpiegitura da zentroa; lagun gehiagorentzat lekua dago oraindik ▶ 6



A. IMAZ



TOLOSA ▶

**Elosegi
parkea
birgaitzeko
lanak abian
dituzte jada**

Hitzarmena sinatu dute Udalak eta Goroldi enpresak ▶ 2

Hitzarmena sinatzen. E.E



IES Hernani BHI
A. Iturriaga - E. Labaka



A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550
e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com


ELEKTRIZITATEA

Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)
Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA

Mekanizazioa (Erdi Maila)
Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa)
(Goi Maila)

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 7ra



EZBEHARRA ▶

Hiru kamioik istripua izan dute N-1ean, Tolosa parean

Atzo 03:50ean gertatu zen talka eta auto ilara luzeak eragin zituen goizean zehar

ERREDAKZIOA

Atzo, goizaldeko 03:50ean hiru kamioik istripua izan zuten Tolosa parean N-1 errepidean, eta ordutik hamarrak aldera arte Donostia alderako bidea itxia egon zen, auto ilara luzeak eraginez. Kamioi bat gurutzatu egin zen Donostiako noranzkoan zihala, eta beste biak jo egin zuten. Ezbeharraren ondorioz kamioi gidarietako bat zaurituta ospitalera eraman zuten.

Talkaren ondorioz, ibilgailuetako batek kale-argi bat jo eta galtzadara hota zuen, eta horrek Gasteizerako bideetatik zihozazuen joana ere oztopatu zuen. Haietako bik su hartu zuten, eta horrek eragozpen handiak sortu zituen Tolosa inguruan, N-1ean nahiz herri barnean. Donostia aldera A-15 eta N-130 erabili behar izan zituzten denek, eta kilometro askoko ilarak sortu ziren. Hamabiak arte ez zituzten bi erreikiak zabaldu.

NATURA ▶

Elosegi parkea birgaitzeko lanak abian dira dagoeneko

27.000 metro karratuko eremu hau berreskuratzeaz Goroldi enpresako zortzi langile arduratuko dira



27.000 metro karratu neurtzen ditu Elosegi parkeak, eta eremu ugari sasiak hartuta daude. HITZA

ESTI EZEIZA

Elosegi parkea birgaitzeko hitzarmena sinatu zuten atzo Udalak eta Gureak Taldeko Goroldi S.L. enpresak. Izan ere, egun, Udala da parkearen jabea, eta Goroldi SL arduratuko da lanez. 150 langile inguru dituen Gureak Taldeko lorezaintza enpresa da. Akordioak Lanbide, Euskal Enplegu Zerbitzuaren laguntza jaso du eta ezintasunen bat duten Tolosal-

deko 8 pertsonen lan egiteko aukera emango die. Akordioa, Jokin Bildarratz Tolosako alkateak eta Carlos Reglas Goroldi enpresako gerenteak sinatu zuten. Bildarratzen esanetan, «27.000 m² berreskuratzea Tolosarentzat garrantzitsua da, hiriarren birika izango baita».

Arduradunek adierazitakoaren arabera, prestakuntza planak hiru helburu ditu. Batetik, udalerriko Elosegi parkeko eremuak birgaitzea, eta ondo-

ren, trebakuntzak dirauen bitartean, zaintzen eta mantentzen laguntzea. Bestetik, ezintasunak dituzten pertsonak lorezaintzan trebatzea. Azkenik, gizarteratzeko arazo bereziak dituzten pertsonen gizarteratzen eta lan munduan sartzen laguntzea, interes komunitarioko proiektu batean parte hartuz. Langile hauen aukeraketa Gureak taldeko pertsonala ataleko, Tolosako Udaleko Gizarte Ongizateko departa-

mentuko eta Tolosaldea Garatzeneko lan-eskari zerrenda osatzen dutenen artean egin dute. Zortziek hiru ezaugarri hauek dituzte: ezintasun bat duten pertsonak dira, langabezian daude eta Tolosaldekoak dira. Prestakuntza planak irauten duen bitartean, begirale baten eta Goroldi SLk Tolosan duen teknikariaren laguntza teknikoak izango dute.

Elosegi parkeak hartzen dituen 27.000 metro karratuen birgaitze planak 66.000 euroko aurrekontua du. Lanbidek, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileraren barruan dagoen Euskal Enplegu Zerbitzuak, 54.000 euroko diru laguntza eman du begiralearen eta zortzi langileen soldatak ordaintzeko. Aurrekontua osatzeko falta diren 12.000 euroak Goroldi jarriko ditu. Diru hau makinaria, erremintak, segurtasuna bermatzeko ekipoa eta beharrezkoak diren beste materialak ordaintzeko erabiliko dute.

Formazioaz haratago

Arduradunek aurkezpenaren aurreratu zuten, «lanak amaitu ondoren, planaren aprobetxamendu egokia egin duten langileek Goroldi zonalde honetan dituen lantaldeetan edo sektore bereko beste enpresetan lanean hasteko aukera izango dute, hori baita akordioaren funtsa».

Prestakuntza plana dagoeneko hasia duten ikastaro teoriko batekin abiatu dute. Bertan, egin beharreko lanerako nahitaezkoa den formazioa jasoko dute, egingo duten lanaz kontzientziatuko dituzte eta segurtasun neurriak hartzen erakutsiko diete. Formazio teorikoak 4 asteko iraupena izango du, eta fase hori amaitzean, sei hilabetez luzatuko den birgaitze lanekin hasiko dira. Hilabete hauetan egin beharreko lan nagusia ingurua garbitzea da «eremu ugari sasiak hartuta baitaude, eta hauetara ezin da iritsi ere egin, bestalde paretak batzuk ere erorita daude», azaldu zuten arduradunek.

hilberria ▶

Eleuteria Barriola Legarra

(Julian Ormazabalaren alarguna)

Atzo hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Golan bego—

Bere seme-alabak: Pedro Mari eta Begoña Zubizarreta, Mila eta Juan Ramon Vicente, Miren eta Julen Mujika; bilobak: Lierni eta Antxon, Iker, Ibon eta Carol, Bakartxo eta Iban eta Eider; birlobak: Iker, Libe, Mikel eta Naia; anai-arrebak: Pedro (+) eta Kristina Lertxundi, Xabino (+), Bautista eta Karmen Goikoetxea eta Benita Ormazabal; zaintzailea: Amaia Saralegi; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR arratsaldeko 19:00etan, ASTEASUKO SAN PEDRO parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

oharra ▶ gorpua Tolosako Funeraria Vascongada tanatorioan egongo da 17:30ak arte
Helbidea: Zilar kalea, 2. Asteasu.

ASTEASU, 2007eko ekainaren 2a

hilberria ▶

Eleuteria Barriola Legarra

(Julian Ormazabalaren alarguna)

Bilobak: Lierni eta Antxon, Iker, Ibon eta Carol, Bakartxo eta Iban eta Eider

ASTEASU, 2007eko ekainaren 2a

urteurrena ▶

IX.urteurrena Ina Zeberio

(1998ko ekainaren 5ean eraila)

Mugak haustea izan zenuen helburu. Zure bihotz zabalean milaka pertsonak aurkitu dute aterpe.

Etxeokoak

Bihar 13:00etan ekitaldia monoitio aurrean.

LIZARTZAN, 2007ko ekainaren 2an



hilberria ▶

Loinaz Urrestarazu Lazkano

Herenegun istripuz hil zen, 32 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Golan bego—

Bere mutil-haguna: Imanol Bidekieta; gurasoak: Juan eta Ino (†); anai-arrebak: Aitor, Argoitx eta Eider Alustiza; osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR, LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, MIKEL GOIANGERUAREN parroki elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Zigor 9, 1. ezk.

Oharra ▶ gorpua Beasaino Goierri bellatokia egongo da. IDIAZABAL, 2007ko ekainaren 2a



HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPIZKOLAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

SASKIBALOIA ▶

Tolosa-Aralar ligako txapelduna

81-68ko emaitzarekin garaitu zituzten tolosarrek EHU Araba taldekoak

ERREDAKZIOA

Pasa den larunbateko partida irabazita, lehen postuan amaitu dute denboraldia Tolosa Aralar-eko mutilek. Amaiera bikaina eman diote, beraz, denboraldiari, 30 partidetan 24 garaipen eta 6 porroteko balantzearekin, eta noski, lehen maila nazionalerako igoerarekin.

EHU Araba taldearen aurka jokatu zuten azken partida. Unai eta Kaiet piboten bajez gain, azken unean jakin zen Albertoren baja. Beraz, bederatzi jokalarit zituzten jokatzeko. Lehen hiru laurdenak nahiko berdinduak izan arren, azkenekoan etorri zen aldeak ateratzeko unea eta «zaleen bultzadarekin», 13 puntuko errentarekin amaitu zuten partida, 81-68ko emaitzarekin.

Partzialak ondorengoak izan ziren: 18-20; 40-41; 59-58; 81-68. Tolosa-Aralar taldeak lau zatietan puntu hauek sartu zituen: (18+22+19+22). Jokatu zuten jokalariek, berriz, hauek izan ziren: Kike (7), Martia (5), Fernando (8), Haritz (14), Joseba (11) —hasierako bostekoa — Goar (12), Mikel Txiki (7), Iñigo (4) eta Ion (13).

EHU Araba talde aurkariak, berriz puntu hauek sartu zituen lau zatietan: 20 + 21 + 17 + 10). Jokalariei dagokionez, ondorengoek jokatu zuten: Perez (8), Guinea (6), Arrue (9), Peña (7), Garmendia (8) — hasierako bostekoa — Redondo

(4), Briones (5), Carrera (6), Alberdi (2) eta Arregui (13).

Denboraldia amaitu eta estatistikei kasu pixka bat eginez, 30 partidetatik 24 garaipen eta 6 porrotekoa izan da balantzea. Etxeko balantzea, 14 garaipen eta porrot batekoa izan da eta etxetik kanpo, 10 garaipen eta 5 porrotekoa. «Inolako zalan-tzarik gabe, tolosarra izan da txapelketako defentsarik onena, partidako 61 puntu soilik jasoaz». Sartutako puntuei dagokionez 73 sartu dituzte.

Bestalde, denboraldiko jokalaririk erregularrenari ematen dioten Elorri saria, Ion *trastabilas* Izagirrerri ematea erabaki zuten harmailetan egin zuten hautaketan.

Partidaren ostean, Andoni Gorostidik prestatutako afari «bikain» batez gozatzeko aukera izan zuten taldekide eta zuzendaritzako kideek. Taldeak eskerrak eman nahi dizkie sukaldari eta laguntzaileei «prestatutako jaki goxoengatik». Datorren astean urteroko gira egingo dute denek.

KIROLAK ▶

Diru laguntza Kirol Teknifikazio Zentrorako

Milioi bat euro emango ditu Espainiako Gobernuak

ERREDAKZIOA

Espainiako Ministroen kontseiluak Tolosako Udaleraiko milioi bat euroko diru laguntza bat ematea onartu zuen atzo. Hain zuzen ere, Kirol Teknifikazio Zentroa eraikitzeko eta hornitzeko erabiliko da laguntza hori.

Gainera, kirolaren zentroa ere izango du gune horrek, eta baita, ikastaroetarako eta hitzaldietarako pedagogia gelak ere. Halaber, indarra trebatzeko entrenamendu gelak eta txirindularitzaren biomekanikaren azterketarenak ere izango ditu. Hauek guztiak, esan bezala, Tolosan jarriko dituzte.

Eraikiko duten zentro berriak txirindularitzari buruzko irakaskuntza teknikoak, banakakoa edo taldekakoa, eta kirol baloreen heziketa lantzea izango du helburu. Baita txirindulari entrenatzaileen eskola sortzekoa ere.

ELKARTASUNA ▶

Familiak behar dira Saharako umeak hartzeko

Izena emateko epea ekainaren 15a da; uztaila eta abuztua igarotzen dituzte gurean



3 haur saharar errefuxiatuen kanpamentuetan. I. TERRADILLOS

I. TERRADILLOS

Urtero bezala, aurten ere abian da haur sahararrak udan etxean hartzeko Oporrak Bakean ekimena. Hain zuzen ere, 1996. urtean jarri zuten martxan proiektua, eta orduetik asko dira uztailaren eta abuztuaren sahararrak euren etxean hartu dituzten familiak.

Dagoeneko uda honetarako hainbatek izena eman duten arren, oraindik ere familiak behar dituzte haurrak hartzeko Tolosaldean. Hori dela eta, izena emateko epea ekainaren 15era arte luzatu dute. Izena eman nahi duenak Tolosako

Udaleko Gizarte Zerbitzuetara dei dezake, 943 69 74 60ra edota Tolosaldea Sahararekin elkartera, 645 710 789 zenbakira.

Programaren bidez, Tindufeko errefuxiatu kanpamentuetan bizi diren 7-12 urte bitarteko neska-mutillak hemengo famuliek etxeko bat gehiago bezala hartzeko aukera eskaintzen da. Haurrak desertuko tenperatura altuetatik ateratzea, osasun arazoak hartatzea eta nutrizio akatsei aurre egitea da helburua, besteak beste, eta baita, «haurrek eta familia hartzaileek ahaztuko ez dituzten bi hilabete igarotzea».

hilberria ▶

Loinaz Urrestarazu Lazkano



Hire irria
Hire alaitasuna
Hire xamurtasuna
Gure taldean
Izango dun beti
Adiorik ez!
beste bat arte baizik.

Idiazabalgo Herri Kirol Taldea

IDIAZABAL, 2007ko ekainaren 2a

hilberria ▶

Loinaz Urrestarazu Lazkano



Izarren hautsa egun batean
bilakatu zen bizigai,
hauts hartatik ustekabea
noizbait ginaden gu ernai.

LAB sindikatuak

IDIAZABAL, 2007ko ekainaren 2a

iragarki laburrak ▶

LANA

Zaintzailea. Uztailaren, goizez, Tolosa inguruan haur bat zaintzeko prest nago. Interesatuak deitu 616 077 066 telefono zenbakira.

ALOKAIRUAN

Taberna. Alegin, taberna alokatzen da herriaren erdigunean. 635 71 97 86.

GALDUTAKOAK

Zakurra. Artzai bakur beltz bat galdu da Uzturren, Mendi izenekoa. 600 372 337.

hilberria ▶

Loinaz Urrestarazu Lazkano



Herenegun hil zen lan istripuan.
Bizitza gogorra bada
gogorregia da jada
gaurkoan behintzat hala da
joan zera eta gu ezin heldu
zauden leku horretara.
Agur, muxu, besarkada
beti oroituko gara
gu denok eta euskara.
Illati Euskara Elkarteak

IDIAZABAL, 2007ko ekainaren 2a

hilberria ▶

Loinaz Urrestarazu Lazkano



Gugan sentitu degu gaur
bizitzaren aitzo hotza
zirri, zarra hotsik gabe
isilik zain dago trontza
gu alaitu nahirik dator
zure panderoan hotsa,
agur lagun abertzale
izar gorridun bihotza.

Idiazabalgo Ezker Abertzalea

IDIAZABAL, 2007ko ekainaren 2a

MUSIKA ▶

Oskorri taldeak 'Banda band' disko berria kaleratu du

Iazko abenduan Bilboko Udal Bandarekin emandako kontzertuekin grabatu du

IRUNE BERRO (Berria)

«Gu gaituzu Oskorri / zuri, berde eta gorri / Umorez gara etorri zuen guztion pozgarri». Taldea sortu eta hainbat urteren ondoren, plazarik plaza jarraitzen du Natxo de Felipe gidari eta kideetako bat Xabier Zeberio tolosarra duen bandak. Eta hala segitzeko asmo irmoa du. Halaxe ospatuko du, halaber, 35. urtemuga. Iazko abenduan Arriaga antzokian Bilboko Udal Bandarekin emandako kontzertuen diskoa, *Banda band* (Elkar), herririk herri aurkeztuko dute datozen hilabetean.

De Felipek azaldu duenez, Oskorriko musikariak «ganorabako hutsak» dira urtemugez gogoratzeko. «Jendeak esan behar digu 'aizue! laster ez dakit zenbat urte beteko dituzue'. Guk beste nonbait dugu burua». Musikan, beharbada. Taldearen urteurrena gogoan, Bilbao Musika fundazioak Udal Bandarekin jotzeko gonbita egin zien Oskorriko kideei, eta hasieran beldur pixka bat izan zuten arren, berehala



Xabier Zeberio (ezkerrean) Oskorriko gainerako kideekin, herenegun aurkezpenean. LUIS JAUREGALTZO/AP

onartu zuten erronka. «Sintesi operazio horretan taldearen nortasuna ez ote zen ezabatuko beldur ginenu», aitortu du De Felipek. Udal Banda eta Oskorriren musikek bat egiteko prozesua luzea izan dela esan du; «entsegu asko behar izan ditugu».

Baina zalantza izpirik ez zuten: «Bandarekin grabatu nahi genuen diskoa, bandak plaza taldeak baitira, gizartean inplikazio handia dutenak. Herriko edozein txokotara iristen dira». Oskorri talde horien antzekoa dela uste du De Felipek. «Ez gara musikari ospetsuak, herrian ezagunak baizik», esan du Blas de Otero idazlearen aipu bat gogora ekarrita.

Halaber, bazuten beste erronka bat: «Banda batekin zer egin zitekeen ikusi nahi genuen». Hala, *Banda band* diskoan jaso dituzten abesti guztiak ez dute soinu bera. Areago, diskoak hainbat giro dituela adierazi du De Felipek, alegia, askotariko delak. «Kantuen artean ez daude bakar-bakarrak, jendeak bandako errepertorioa abestitzat dauzkanak. Badaude halako batzuk; *Gu gaituzu Oskorri* eta *Furra furra*, esaterako. Baina beste batzuek tratamendu soilagoa behar izan dute; *Emazurtz jaio hintzen*, *Aita gurea*, *Adios ene esposa* kantuek bandarekin jotzeko zailak ziruditen, baina harro gaude diskoarekin».

Izan ere, lan handiaren eta moldaketa ugariren ondoren, «emaitza musikal harrigarriak» lortu dituztela pentsatzen dute Oskorriko kideek. «Entzuleek beste sonoritate bat aurkituko dute diskoan, baina sonoritate horrek ez du ezabatzen, beste talde batzuen esperientzietan ikusi denez, Oskorriren nortasuna». De Feliperen irudiko, sintesi polita lortu dute bandaren eta Oskorriren sonoritateen artean. Hilario Extremianak egin ditu konponketak. 2006ko abenduan 15ean, 16an eta 17an Oskorri eta Bilboko Udal Bandak eskainitako kontzertuak, bestalde, Jean Phocas teknikariak grabatu zituen.

Garai guztietako abestiak

Orotara, 14 abesti jaso dituzte lan berri honetan, 1971. urtetik hona atera duten 33. diskoan. Garai guztietako kantauk aukeratu dituztela agertu du Bixente Martinez Oskorriko musikariak. 25. urtemugaren harira hainbat musikariren parte-hartzearekin zuzenean grabatutako disko bikoitza atera zuen taldeak, eta lan horretatik kanpo geratu ziren aspaldiko abestiak berreskuratu ditu Oskorri taldeak *Banda band* diskoan. Haien artean, *Forjarien kanta* eta *Gipuzkoako buelta* argitaratu gabeak direnak, hain zuzen.

Halaber, 2000. urtetik hona egin dituzten diskoetako zenbait abesti sartu dituzte diskoan. Baita popurri bi ere: *Vizcayatik...* *Bizkaiara* diskoko abestiek egindako bat, eta 35 urtean umeentzat atera dituzten hiru diskoetako abestiek osatutako beste bat.

Banda band laneko kantauk jendaurrean aurkezteko gogoia dute orain Oskorrikoek. Eta jada hitzartu dituzte zenbait kontzertu. Abuztuan Donostia eta Bilboko jaietan ariko dira hiri bateko zein besteko udal bandekin. Iruñeko Udal Bandarekin ere prestatzen ari dira *Banda band* diskoko errepertorioa, baina sanferminen ondoren ariko dira elkarrekin. Horretaz gain, Getxoko Folk Jaialdiko antolatzaileekin harremanetan dira, baina ez dakite ez ote dabilizan berandu ezer jotzeko. Euskal Herrian, 70 herritan daude musika bandak, eta haietan guztietan jotzeko asmoa dutela esan du De Felipek. Musika bandarik ez duten herrietan aritzea, gainera, ez dute baztertzen. Izan ere, Leioako kontsektorio bati bandarekin nonahi jotzeko entseazten ari dira.

NACHO DE FELIPE OSKORRIKO MUSIKARIA

«Bandarekin grabatu nahi genuen, plaza taldea delako eta banda batekin zer egin zitekeen ikusteko»

PILOTA PARTIDUAK
aspepelota.com

Ekainak 4 • Astelehena
16:30

Galarza V - Apeztegia
Berasaluze IX - Nalda III

MTEZ. DE IRUJO - LASA III
TITIN III - LASKURAIN

Del Rey - Arizmendi
Apeztegia - Arruti

Tolosako Beotibar pilotalekuan

TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

→ Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua

Erdi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Ekipo eta instalazio Elektroteknikoak

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
Ekainaren 1etik 7ra

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu

Tel.: 943 65 11 47 • 943 65 06 64
idazkaritza@tolosaldea.com • www.tolosaldea.com

KIROLAK ▶

Araxesko VIII. Itzulia egingo dute bihar

ERREDAKZIOA

Amarozko Auzo Elkartek bi urtetik behin antolatzen duen Araxesko Itzulia mendi ibilaldi neurtua izango da bihar. Ibilbidea aurreko edizioetako bera da. Amaroztik 07:00etan aterako dira parte-hartzaileak eta 9-12 ordu inguru igarota itzuliko dira berriro ere Amaroztara.

ADUNA ▶ LITERATURA

‘Txikimundi’ liburua argitaratu dute eskola txikien alde

Proiektuan parte hartu dute, besteak beste, eskualdeko Juan Kruz Igerabide eta Joxan Ormazabal idazleek

IMANOL GARCIA

Txikimundi liburua aurkeztu zuten atzo Donostian. Eskola txikiei lotutako argitalpena da. Hilaren 10ean eskola hauek beraien festa ospatuko dute Zubietan (Gipuzkoa) eta horren harira egin zuten atzoko aurkezpena. Liburuaren egileen artean daude Juan Kruz Igerabide idazle adunarra eta Tolosan bizi den Joxan Ormazabal idazle eta editorea. Biak izan ziren aurkezpenean Isidro Zaldua Zubietako eskolako Guraso Elkarteke lehendakariarekin batera. Beste egileak Jesus Mari Olaizola *Txili*, Mitxel Murua eta Xabier Mendiguren izan dira. *Mattinek* egin ditu liburuko marrazkiak.

Argitalpen honek festa diruz laguntzeko balio du. Iaz *Gure mundu txikitik* liburua argitaratu zuten. Bi liburua Elkar argitaletxeak eman ditu argitara. *Txikimundi* poemaz eta ipuinez



Juan Kruz Igerabide, Isidro Zaldua eta Joxan Ormazabal. HITZA

osatuta dago batez ere. Igerabidek poemak idatzi ditu. «Jolasteko liburu bat da», azaldu du idazle adunarrak. «Era askotako materiala biltzen da bertan eta marrazkiek asko laguntzen dute jolaserako duen ezaugarri horretan». Liburuan agertzen den bere lehenengo poema, hain justu, gorputzeko

zati ezberdinak identifikatzen joateko olerkia bat da. Azkeneko orrialdeetan igarizun batzuk ere sartu dira, neska-mutilek burua pixka bat neka dezaten eta hemendik eta handik erantzunak bilatzen saia daitezten. Joxan Ormazabalek aritu da atal hori osatzeko.

Maitagarriei buruzko euskal ipuinak

Juan Kruz Igerabidek aste honetan beste liburu baten aurkezpen bat ere egin du. *Zaku bete hauts* maitagarriei buruzko zenbait ipuin moldatu ditu. Adunarrak testuen ardura izan du eta Luis Alonsok egin ditu ilustrazioak. Aizkorri argitaletxeak argitaratu du liburua.

Igerabidek maitagarriei buruz bildu diren ipuinen hautaketa egin du. Ipuin mota horien bilketan Jose Maria Sa-



Liburuaren azala. HITZA

trustegik egindako lana nabarmendu du idazleak. Argitalpenean bildutako zenbait ipuinetan moldaketa batzuk egin ditu adunarrak, hizkuntza eta estilo aldetik. Luzera aldetik oso luzeak ez direnak hartu ditu hainzatz.

Ipuinak herrikoiak dira, euskal tradizioaren baitakoak. Asko European ere kontatzen direnak. Ipuinak haurrei kontatzeko zein berarek irakurtzeko izan daitezke. ◀

AIZTONDO ▶ LITERATURA

Antolatzaileak «gustura» I. Gutun Lehiaketarekin


ERREDAKZIOA

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako I. Gutun Lehiaketaren sari banaketa egin berri dute Larraulen. Guztira parte-hartzaileak 22 izan dira eta antolatzaileak «gustura» azaldu dira, «lehenengo urtea izateko».

Ondoko hauek jaso zituzten sariak: A mailan, 6-8 urte bitartekoak, lehenengo saria Adunako Aitor Zabalentzat eta bigarrena Adunako Aizpea Belaskorentzat. B mailan, 9-11 urte bitartekoak, lehenengo saria Martin Lizardi alkizararentzat eta bigaren saria Pello Alkain larrauldararentzat. C mailan, 12-16 urte bitartekoak, lehenengo saria Aia Kruse alkizararentzat. Azkenik, E mailan, 17 urtetik gorakoak, lehenengo saria Imanol Artola amezketararentzat eta bigarren saria Lander Majuelo iruñararentzat. Saridunek beraien gutunak irakurri zituzten saribanaketan.

Gerra Zibila hizpide

Helduen sailean irabazte suertatu zen Imanol Artolak *Algorta 1941* izenburua jarri



Martin Lizardi bere gutuna irakurtzen. I. GARCIA

zation bere lanari. Ez zuen espero amezketarrak saria jasotzea. Espainiako Gerra Zibilean kokatzen du gutuna. Aurki aita izan behar duen batek gudara joatea erabakitzen du eta Gernikako bonbardaketan preso hartzen dute. Bere alaba ez du ezagutzen eta gutun bat idazten du. Artola Gerra Zibilaren gaia jorratzen ari zen eskolan, eta telebistan ere komunikabideetan horren berri ere jaso zuenez, gai hori jorratzea otu zitzaion.

VILLABONA ▶

‘Itsasminez’ haur antzerkia Arroakoentzat

Ikasturtearen bukaera hurbiltzen ari dela eta, Flemingo Guraso Elkarteak Arroako haurrentzat emanaldi berezi bat antolatutako *Itsasminez* haur antzerkia. Emanaldia etzi izango da, Gurea aretoan, 17,30ean hasita. 50 minutuko iraupena izango du.

IRURRA ▶

Begiraleak behar ditu Udalak Goiza Pasarako

Irurako Udalak Goiza Pasa udaleku irekiak antolatutako uztailerako. Begirale gisa lan egiteko izena eman beharko du udaletxean (15:00ak arte) edo liburutegian (17:00etatik 19:00etara), kurrikuluma aurkeztuz, hilaren 12a baino lehen.

hitza

EGUNEAN 19 zentimoren truke egin zaitez harpidedun!

BEZEROARENTZAKO ARRETA ZENBAKIA: 902 820 201

hilberria ▶

Loinaz Urrestarazu Lazkano

Herenegun istripuz hiltzen 32 urte zituela.

Une goxo ugari igaro ditugu baina atzoko kantua malko bihurtu zaizkigu gure lorerik ederrena maiatzak eramantzen baitugu.

Bidekieta-Eskisabel familia

IDIAZABAL, 2007ko ekainaren 2a

hilberria ▶

Loinaz Urrestarazu Lazkano

Makiña bat txoko ala itutakoa haiz; Hire irrintzin oihartzuna entzuten seittuko diñau betiko. Hik esate hunan bezala: «Gora Bihotzak».

Hire koadrila

IDIAZABAL, 2007ko ekainaren 2a

BERASTEGI ▶ GIZARTEA



Berastegiko Eguneko Zentroko bi printzesak Arantzazu zaintzailearen begiradapean, goizetako bizikleta ariketak egiten. ASIER IMAZ

Eguneko Zentroko printzesak

Maiatzan jarri zuten martxan Eguneko Zentroa eta Maria eta Pakita dira lehen erabiltzaileak, nahiz eta oraindik lagun gehiagorentzat lekua egon

ASIER IMAZ

Eguneko zentroa zabaldu berri dute Berastegin. Adineko pertsona bere bizitokian mantentzeko xedea duten zerbitzuen eta erresidentzi zerbitzuen artean, laguntza eskaintzeko erdibideko azpiegitura bat da Eguneko Zentroa. Ordutegiaren aldetik berriz, astelehenetik ostiralerakoa izango du, jai egunak kanpo geratuko direlarik. Goizeko 09:30ean zabalduko da eta 17:30ean itsiko ditu ateak.

Udalaren esanetan, helburu nagusi bat du: «Beraien etxeetan bizi eta arreta pertsonala, zein psikologikoa edo emozionala behar duten adineko per-

tsonei, behar duten laguntza osoa eskaintzea. Horretarako, autonomia mailari eusteko, errehabilitazioa eta bere adimen eta mugikortasun ahalmenak lantzen dira. Edadeko pertsonarekin bizi diren sendikoei ere laguntza profesionala eskaintzen zaie; zaintzaile gisa aritzen direnek atsedena hartu ahal dezaten eta familiei, edadetuaren ahalmenak zaintzeko, behar duten ezagupenak eta aholkularitza emanaz».

Eguneko Zentroan tokia eskaintzeko, «aurrena, Udalaren Gizarte Zerbitzuetara jo behar da. Bertan, eskatzailearen gizaritate egoera, fisikoa zein psikikoa aztertuko dira. Eguneko Zentroa baliabiderik egokiena

den hala ez egiaztatzen». Kostu aldetik berriz, «erabiltzaileak, Udalak eta Diputazioaren artean ordaintzen da erabiltzailearen plaza».

Kudeatzaile jarri duten enpresa pribatuaren berri ere zabaldu du Udalak. Hala, zentroaren kudeaketa osoa bere gain hartzen duen enpresa GSR S.Coop da. MCC taldearen barne dagoen kooperatiba, eta erresidentzietako zerbitzuen eskaintza du bere xede. Bertan lan giten duten langileak, Berastegiko bizilagunak dira eta kooperatiba honetara lan bazkide mugagabe bezala sartuko dira.

Azkenik, edozein motatako informazioa lortzeko, telefono

zenbaki baten berri eman du Udalak: 943 68 34 50 zenbakia, hain zuzen ere.

Maria eta Pakita

Gaur egun, Eguneko Zentroan Maria eta Pakita berastegitarak aurkitzen dira. «baina laster elkartuko zaizkie lagun gehiago».

Goizeko 09:30ean elkartzen dira zentroan Arantzazu zaintzaileak deitzen dien bezala *Bi printzesak*. Egunkariak irakurri osten, gimnastika egiten dute. Mariaren esanetan, «lehengo hezur zaharrak atera eta zintzilik jartzen ditugu». Ondoren, beti ere aste eguna- ren arabera, dominoan edo bo-

loetan jolastu edo gehiketak eta kenketak egiten dituzte. Eskulanak ere gustura egiten dituzte Mariak eta Pakitak, nahiz eta gero, biak euren argazkiekin egindako koadro txikiak ikustean lotsatu egiten diren.

Bertan bazkaltzen dute astean zehar eta «dasaitasun ederrean oso ongi» jaten dutela azpimarratzen dute biak. Denen artean ontziak eta mahaia garbitu ondoren, Pakita arratsaldean etxera joaten da. Maria berriz Ixiarrekin gertzen da «tertulian-eta egoten gara». Atsedenaldira labur bat hartu ondoren, 17:30ak arte Eguneko Zentroan egoten da Maria «oso gustura».

Pakitaren esanetan, «semelabak lanean egoten dira eta bakarrik ez egotearen hona etortzen naiz. Lehen eguna gorrak izan bazen ere, gero asko eskertzen da hemengo berotasuna. Oso jende ona dago hemen eta ongi moldatzen gara». Mariak ere antzeko hitzak ditu zaintzaile eta Pakita lagunarentzat umore alaiean: «Oso ondo eta kontentu nago. Bikain zerbitzatzen gaituzte gainera. Lagunarteak animo bikoitza ematen du bakarrik egotearen aldean».

Herrian «kurirosidatea» piztu omen da, Ixiar zentroko arduradunaren esanetan, baina gauza berri bat denez, lagun gehiago biltzeko denbora pixka bat beharko da. «Ez dakit ziur zergatik den, baina ziur gaude hona etortzeko lehen urratsa eman ezker, ez direla ondoren damutuko».

Eguneko Zentroa lagun gehiago elkartuko zaizkien zain dauden bitartean, argi dago *Bi printzesak* ez direla geldirik egongo. Ixiar eta Arantzazu zaintzaileek, hurrengo egunetarako lanak iada jarriak dizkie. «Eguneroko lanak egiteaz gain, eskulan berriak egiten hasiko dira Pakita eta Maria. Lehena laster makramea egiten hasiko da. Maria berriz, kristalezko botiletan gata eta tizarekin egiten diren kolorezko irudiak egiten hasiko da».

INKESTA ▶ Nola ikusten dituzu hirugarren adinekoak gaur egungo gizartean?

IZARO SAIZAR
MUSIKARIA

«Berastegin aisialdi elkarte bat dugu»



«Berastegin, gure herrian, aisialdiko elkarte bat dago funtzionamenduan, laguntza jasotzeko edo kartetan jokatuaz denbora pasatzeko bertara joaten dira».

KARLOS LINAZASORO
IDAZLEA

«Baztertu xamar ikusten ditut»



«Gaur egungo gizartean baztertu xamar ikusten ditut. Nik uste dut gaur egungo balioen artean, zahartzarora ez dagoela zehiztasun estimatzen den balioen artean».

J. M. ITURRALDE
IDAZLEA

«Bi arazo larri ikusten ditut gaur egun»



«Orain dela 20 edo 40 urte baino hobeto ikusten ditut, baina bi arazo larriekin: diru sarrera eskasak, miseria bat askotan eta nora joan ezina, diru sarrerekin lotua».

JON ALTUNA
FUTBOLARIA

«Familia harremanek dute garrantzia»



«Bizi gutzia lanean pasata pentzio bajua gertatzen zaie. Badirudi agintariekin isilik egoteko beharrezko ordaintzen dietela. Nire usteetan bakardadea da arazoa».

JOXI IMAZ
EHU-KO IRAKASLEA

«Bada industria gisa ikusten dituenik»



«Gizarte honek gehiegi baloratzen ditu berritasuna eta moda. Gutxiegi berriz tradizioa eta esperientzia. Helduak gutxiegi errespetatu eta baloratzen ditu».

LEITZA ▶ KULTUR ASTEA

‘Bertsotranpak’ emanaldia ikusgai gaur zineman

Ander Lipusek, Andoni Egaña, Xabi Paia eta Fredi Paia bertsolaritza eta antzerkia uztartuko dituzte 19:00etan



Euxebio Egañaren karakterizazioa. HITZA

NAIARA GARZIA

Gaur iluntzeko 19:00etan *Bertsotranpak* emanaldia eskainiko dute zineman Ander Lipus, Andoni Egaña, Xabi Paia eta Fredi Paia. «Saio honen bitartez ohiko estilotik kanpo bertsotan nola egin daitekeen ikusi ahalko dugun», azaldu du Unai Elizasus, Leitzako kultur taldeko kidea.

Bertsotranpak emanaldia-aren argumentu nagusia egañatarren eta paiaatarren arteko desafio bat da. Paiaatarrek Xabi eta Fredi izanen dira eta Egañatarren kasuan, Andoni Egaña gain Euxebio Egaña Ander Lipusek karakterizatuko du.

Bertsotranpak lanarekin 20 bat saio badaramatzatela azaldu du Xabi Paia bertsolariak. «Berez honen abiapuntua

2005eko azaroa-abenduan dago. Ander Lipusi Getxoko Udaletik Getxorako zerbitu berezia prestatzeko eskatu zioten, bertsosartean zuela eta orduan honek Andoni Egañari deitu zion eta gero Algortako bertsoskolaria etorri zen eta Fredirekin eta nirekin batu zen. Hortik prestatu genuen lehenengo *Bertsotranpak* saioa Getxorako. Egin eta gero denoi asko gustatu zitzaigun». Lehenengo esperientzia hori eta gero saioarekin aurrera jarraitzeko pentsatu zuten. «Aurrera jarraitzeko beste modu bat izan zitekeela ikusten genuen eta ohiko bertsosaiotan ez geneukan zerbitu lantzeko bidea. Gainera antzerkiarekin eta musikarekin batzea ere polita izan zitekeela pentsatu genuen».

2006ko udaberrian saio esperimental batzuk egin zituzten. «Ea funtzionatzen zuen edo ez ikusi nahi genuen, zer gustatzen zitzaigun, zer ez... Ikusi genuen pixkanaka non funtzionatzen zuen eta non ez, zer egin behar zen denon funtzionatzeko... uda ondoren hasi ginela formatu finko batekin».

Bat-bateko saioa

Bertsotranpak saioaren ezaguri oinarrikoena askatasuna da, neurri batean saioa prestatuta dagoen arren, inprobisazioa ezinbestekoa baita. «Guk halako itun bat egin daukagu eta denak libreak gara saioaren barruan, hau da, Anderrek gai-jartzaile lana egiten du neurri handi batean, eta berak saioaren hezurdura prestatu egiten du, baina askatasunak ere saioa erabat baldintzatu lezake». Oholza gainera, beraz, paiaatarren eta egañatarren artean ze gertatu daitekeen askotan jakiterik ez dago. «Lehenengo Zornotzan Egañari bertsosai bat binaka aldi berean inprobisatu behar genuela sartu zitzaion buruan eta orduan halako esperimentu bat egin genuen. Beste behin Alex Ubagoren doinu bat bertsosai bihurtu nuen. Hortik gara libreago, kantatzeko neurri horretan. Eta gero Ander ere transgresoreago izan daiteke, bat-batean pertsonaiaren arbera igual bururatzin zaio bertsosai bat erdian gelditzea, zerbitu esaten du eta guri bertsosai mol-

datzea eskatzen digu. Hortik doa esperimentazioa. Askatasun horrek giro berezia sortzen du».

Fusioa

Jendearren harrerari dagokionez, beti «oso berezia» izaten dela azaldu du Paia, bertsosaiak eta antzerkiak elkarrekin baitira. «Askotan pasatzen da antzerkiak direnak bertsosaiak ez direla eta bertsosaiak asko ere ez dira oso antzerkiak. Guk ez dugu antzerkiak egiten eta Ander Lipusek ez du bertsotan egiten, baina nahaseta horrek bertsosaiak antzerkiak bihurtzen ditu neurri batean eta alderantziz ere bai. Antzerkiak normalean harrituta etortzen dira gero, izugarri gustatzen zaie nola uztartzen den inprobisazioa antzerkiarekin eta orokorrean oso komentario onak jasotzen ditugu saioak eta gero». Saioek normalean 2 ordutik gora irauten dute, baina 3 ordutik gorako saioak ere egin izan dituzte, «eta jendea halere aukian, jarraitzeko gogo».

Esperimentazioa

Bertsolaritza munduan berrikuntza da *Bertsotranpak* saioaren ekarpen nagusia. «Bizkaitxo Txapela irabazi nuenetik saioak egiten ditut baina askotan jaialdiak dira. Hauek bertsolaria asetzen dute neurri batean baina beti dago zerbitu berria egiteko gogo, eta horretarako ere testuinguru berezi bat behar da, ezin da edonon egin. Neurri batean hori ematen dit *Bertsotranpak* saioak. Testuinguru berri bat da eta aukera ematen dit ohikoak ez diren gauzak saiatzeko».

Payadore bat Leitzan

Honetaz gain Argentinako *payadore* bat ere Leitzan izanen da, emanaldi honen barruan: Wilson Saliwonczyk. «Leitzak zorte handia izanen du zentzu horretan, Argentinako *payadore* bat etorriko da eta zenbait

egunetan hemendik ibiliko da. Gurekin parte hartzeko gonbidapena egin genion, batez ere oso ongi txertatu zitekeelako Anderren pertsonaia jakin batekin. Hortik bideratzea erabaki genuen eta ekainaren 1etik 10era Euskal Herrian izanen da».

Payadoreak Argentina, Chile eta Uruguayko inprobisatzaileak dira, erderaz kantatzen dute kitarraren laguntzaz normalean. «Nik uste oso aukera polita dela jendeari erakusteko bertsolaritza gain inprobisazio kantatua eta bat-bateko munduan oso hedatua dagoela, guk uste baino gehiago eta hau itsasoz bestaldeko lagin bat ikusteko aukera ezin hobea izango da».

Antzerkiaren garrantzia

Ander Lipus aktorea baino lehenago bertsolaria izan da. «Mundu hori nahiko ondo ezagutzen dut eta hori jokoan sartzeko abiapuntu on bat da. Lan honetan antzerkiaren ikuspuntua erabat ezberdina da, normalean antzerkia gauza hermetikoa da, hau da, zuk beti obra bera antzezten duzu. Hemen, berriz, inoiz ezin duzu gauza bera egin, bertsosai freskotasun hori dauka, inprobisazioa». Lipusek pertsonaia batzuk sortu ditu lan honetarako. «Gutxika-gutxika kodifikatuta dauden pertsonaia batzuk eraiki ditut eta egoerak planteatzeko edo gaia emateko erabiltzen ditut. Horrek niri antzerkia egiteko lekuz lekuko aukera ematen dit».

Eszenografiak ere bere garrantzia du *Bertsotranpak* lanean. Oholtzan ikusleek kamerino bat ikusiko dute. «Interpretazioaren artea errepikatzea da, nik errepikatzen ditut pertsonaiak baina berriak ere ateraten dira. Oholtzan aldagaia txiki bat daukat, jendeak ni nola aldatzen naizen ikus dezake eta aldagaia horretatik pertsonaia ezberdinak nola ateraten diren, eta horrek jolasteko aukera ematen du bertsolariekin».

ARAMBURU
Alokatzeko (Salou).
Apartamentua. 2 logela, 7 ohe, aire egokitu eta igarlekua. Hondartza ondoan.
Alokatzeko (Tolosa).
Pisua San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa). Garajeak. Araba etorbidean irekia eta lurren eta San Frantziskon itxia.
Alokatzeko. Pabiloi industrialak. Lebaruko bidean.
Salgai (Tolosa).
Pisua "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa). Pisua Bizkaia kalean, gutzit eraberritua (Sputnik dorrean).
Salgai. Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak ibarran.
Salgai (Tolosa). Garajeak Leidor azpian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

LEITZA ▶ PILOTA

Pilota, herriko plazan eta kanpoan

N. GARZIA

Gaur, azkeneko asteetan bezala, Plazako XV. Txapelketarekin jarraituko dute 15:00etan eta 36 pilotari ariko dira lehian 9 norgehiagokatan.

Bestalde, Aurrerako pilota-

riak gaur Uharte Arakilen eta Lizarran ariko dira. Uharte Arakilen 11:00etan hasiko dira, eta hiru bikotek ordu berean jokatuko dute: Mikel Sagastibeltza Eguesek eta Anartz Olanok, Joxerra Aldaregiak eta Jon Jaunarenak, eta Mikel Iriar-

te eta Aimar Lansalotek. Hauek hiru kategoritan lehiatuko dira: hasiberrietan, haur-kategorian eta seniorrean.

Lizarran, berriz, goiztiarriarriak izanen dira, Oinatz Marietzurrena eta Iosu Zabaleta alde batetik, eta Xabier Jauna-

rena eta Andoni Arozena, bestetik, 09:30ean aritzekoak baitira. Lehenengoek hasiberrietan jokatuko dute, eta bigarrenek, haur-kategorian. Mikel Sagastibeltza Lasartek eta Anartz Olanok 16:30ean jokatuko dute, hasiberrietan.

Bihar ere Aurrera Pilota Eskolako pilotariak Etxaurin ariko dira. Bertan izanen dira Jon Iparragirre eta Ibai Gil.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko ekainaren 2a, larunbata ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **15** hotzena **12**

BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA **902 82 02 01**
 (balantzeak argitzeak, harpidetuen egiteko...)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Albiztur. Bota Patsa umorezko antzerkia izango da Kultur Etxean. Iker Galartza eta Joseba Usabiaga dira aktoreak eta Begoña Bilbao zuzendaria, 22:00etan Kultur Etxean.

Asteasu. Zaldi Festa: 11:00etan orientazio proba; arratsaldean zaldien inguruko erakustaldia; 20:00ak aldera afarria eta ondoren country musika egingo duten hiru talde ariko dira.

Lizartza. Inaren IX. urteurrena: larunbatean Gemnikara bidaia eta omenaldia 12:00etan eraildako tokian; igandean mendi martxa Axurdariora 9:00etan, omenaldia monolitoan 13:00etan eta bazkaria 14:30ean Txirrita elkartean.

Tolosa. Los del gas musika taldearen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Tolosa. Sanjoanetako zezenketa ekainaren 17an Jesulini, El Cordobes eta

Rivera Ordoñez toretzaileekin. Sarrerak salgai Asteasuara, Fronton, Orue, Cantabrico eta 66 tabernetan eta zezen-plazan.

Tolosa. Galtzaundi Euskara Taldeak Txilipurdika ludoteka antolatu du 3 urtetik 10 urtekoentzat, uztailearen 2tik 31ra, 9:30etatik 13:30etara. Izen-ematea, Galtzaundin (Nafarroa Etorbidea 6, beheka. 943 655004). Begiraleak ere behar dira.

Tolosa. La Jarak irteera antolatu du Toledora ekainaren 16 eta 17rako. Prezioa: 140 euro (pentsio osoa 4 izarreko hotelean). Izen-ematea, La Jaran (675 70 76 19).

Villabona. Jesusen Bihotza Ikastolaren festa arratsaldean: pilota partidak

Olaederra kiroldegian 14:00etan; futbola, mus, krossa, aktuazioak, jokuak, eskulan erakusketa, pailazoak, afari-merienda...

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leiza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
 Tolosa. Ollareaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 676013.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitzak hegan.*

Goiko irrattia (107.0 FM)
 12:00. *kornerra.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

PUBLIERREPORTAIA ▶ VILLABONA OPTIKA

«Profesionaltasuna eta kalitatea eskaintzen diegu gure bezeroei»

Gazteak izanagatik zortzi urteko esperientzia dute bizkar gainean Larraritz Tejeria ibartarrak eta Ainhoa Lizarralde Irundarrak. Biek ere optikako ikasketak burutu dituzte, masterrak ikasita eta lan munduan esperientziadunak, elkarrekin negozioa jartzea erabaki dute. Emaitz, Villabonako Kale Berrian dagoen Villabona optika izan da. Joan den maiatzaren hasieran ireki zituen dendak bere ateak eta ordutik «gustura» azaldu dira bi gazteak. Esaerak dioten bezala, «hasiera guztiak zailak» direla dakiten arren, «gogotsu eta pozik» azaldu dira.

Villabona optikako arduradunek zerbitzu optometriko osoa eta kalitatezkoa eskaintzen diete bezeroei. Hala, begietako tentsioa neurtzen dute, graduazio neurketak burutzen dituzte, binokularidadea eta akomodazioa aztertzen dituzte, ikusmen



I. TERRADILLOS

urritasuna dutenentzako laguntza optikoak eskaintzen dituzte, ... Halaber, haurrei arreta berezia eskaintzen diete, terapia bisualen bitartez. «Gure helburua bertara arazo batekin etortzen diren bezeroak emaitza onekin irten ahal izatea da», diote.

Zerbitzu hauek, nola ez, kalitatezko produktuekin uzartzen dituzten optika honetan. Bada, marka onenen produktuak topa daitezke bertan. «Bermea ematen dugu hemen erosten dituzten betaurrekoekin, 3 hilabeteko bermea progresiboan adaptazioan eta bi urteko bermea betaurreko graduatuen hausturetan, besteak beste».

Dendaren diseinua ere asko zaindu dute. «Gustuko genuen zerbaite aukeratu dugu, modernoa eta deigarria». Kokapena ere zaindu dute. «Villabona aukeratu dugu hazten doan herria delako eta bizi handia duelako, negozio batekin behar dituen ezaguriak, hain zuzen ere. Gainera, inguruko herritatik jende ugari hurbiltzen da herrira eta leku ona irudituz zitzagun», diote.

Profesionaltasuna, kalitatea eta esperientzia uztertutik, bada bezeroentzat aukera berria, beraz: Villabona optika ◀



URTE ASKOAN

«Aktore famatu egin naiz eta burura igo zait erabat. Jarri alfonbra gorria astelehenean».



URTE ASKOAN

Ainara eta Angel. Zuen ezkontza egunean ondo ondo pasa. Orain arte bezain jator jarraitu. Muxu handi bat.

AGURRAK ▶

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea



URTE ASKOAN

Unai Mendez (Anoeta). Gaur 5 urte. Azkar igaro zaizkigu. Narroa, aita eta amabak.



URTE ASKOAN

Unax Palacios Goenaga (Ibarra). Gaur urtebete. Muxuak familiaren partetik.



URTE ASKOAN

Alain Ugartemendia Goikoetxea (Elduain). Gaur 8 urte. Muxuak familiaren partetik.



ZORIONAK!

Irene eta Iñigo. Ondo pasa zuen ezkontza egunean.

Villabona optika

Zatuz Villabonako optika berrira!

Ireki berria dela eta **%10eko deskontua** produktu guztietan maiatzean zehar

Kale Berria 23A • 20150 Villabona • Tel.: 943 11 18 40